

Valverde familiak Rosa Valverderen paperezko obraren parte handi bat eman dio dohaintzan San Telmo Museoari

Rosa Valverde artista gipuzkoarraren (Donostia 1953 – Azkaine 2015) familiak egilearen estudioan aurkitutako obra argitaragabeen bildumaren parte bat eman dio dohaintzan San Telmo Museoari; paper, kartulina eta karto gainean egindako 197 lan dira. Ohiko euskarriez gain, lan horietako askotan Valverdek unean eskura zeuzkan materialak erabiltzen ditu: eskolako marrazketa-koadernoak, idazketa-orriak, opari-paperak edo kartoizko erretiluak, horrek, nolabait, sorkuntza horien izaera intimo eta espontaneoa erakusten duela.

Procedura artistikoei dagokienez, Rosa Valverdek askotariko baliabide teknikoak erabiltzen ditu, hala nola collagea, kolorezko arkatzak, tinta, akuarela, tempera, pastela eta argizariak. Marrazkien tamaina txikia eta ertaina da, eta handienak ez dira 45 x 60 cm baino handiagoak.

Ostegun Libreko Akademiaren garaiko, alegia, 1964 - 1967 urte bitarteko, 23 obra daude, gouacheak, akuarelak eta argizariak; 1970 eta 1978 artean egindako lehen lanen arteko 5 obra daude, hainbat teknikatkoak: arkatza, argizariak, tinta, akuarela eta collagea; eta 1979 eta 2014 artean egindako marrazkiak, teknika desberdinan egindako 169 obra.

Artista hil ondoren bere estudioko karpetetan gordeta zeuden marrazkiak aurkitzea ezustekoa izan zen familiarentzat. Izan ere, Rosak marrazketari garrantzia handia aitortzen bazion ere, ez zituen erakusketetara marrazkiak eramatzen, 2012an Iruñeko Ziudadelan egindako erakusketa handiaren salbuespenarekin.

Dohaintzari buruzko txostenetan egin duen Michel Mejuto galeristak dioenez, “garrantzitsua da legatuaren interes dokumentala azpimarratzea, 197 marrazkiko multzo honek Rosa Valverderen lanaren ibilbide kronologiko etengabea marrazteko aukera ematen baitu, Ostegunetako Akademia Libreko ikasle gisa José Antonio Sistiaga eta Esther Ferrerren tutoretzapean egin zituen lehen urratsetatik – irakaskuntza hori funtsezkoa izango zen bere ikuspegi artistikoaren ondorengo garapenean –, hil aurreko hilabeteetan egindako azken marrazkietaraino.

Marrazkien corpus honek, gainera, Rosa Valverderen bilakaera estilistikoa ikuspegi panoramiko batetik ulertzeko aukera ematen du, baita artistak bere obraren argumentu eta *leitmotiv* bihurtu zituen gaiak eta obsesioak dokumentatzeko ere, psikea eta emakumeen gorputza, hautzaroaren oroitzapena, haren beldurrak eta enigmak ardatz hartuta.

Azken batean, bere lanik zabalduena, olioz margotutakoa edo artistak bere estudioan bildu eta metatzen zituen aurkitutako objektuekin eraikitako kaxetan gauzatutakoa ilustratzen eta aberasten duen multzoa da.

Ondare hau, gainera, aukera bikaina da gipuzkoar sortzailearen oroimena gordetzeko, arte-diskurtso pertsonaleko artista berezia baita, gerraosteko abstrakzioaren patroietatik zein belaunaldiko egile garaikideen artean ohikoa den pop, ironiko eta surreal oroitzapenez tindatutako errealismotik aldentzen dena, XX. mendearren bigarren erdiko Gipuzkoako artearen garapenean jatorrizko kapitulu bat irekiz.

Art Brut eta ikerketa surrealetik hurbil dagoen hizkera antiakademikoa erabiliz, psikean eta emakumearen gorputzean oinarritutako mundu pertsonal eta koherentea eraiki zuen Rosa Valverdek, sentikortasun mingarri eta delikatu batetik abiatuta.”

La familia Valverde dona a San Telmo Museoa gran parte de la obra en papel de Rosa Valverde

La familia de la artista donostiarra Rosa Valverde (San Sebastián 1953 – Azkaine 2015) ha donado al Museo San Telmo una parte de la obra en papel de la artista. Se trata de 197 obras inéditas procedentes del estudio de la artista, realizadas sobre papel, cartulina y cartón. Además de soportes convencionales, en muchos de estos trabajos Valverde utiliza materiales “casuales”: cuadernos de dibujo escolar, folios de escritura, papeles de regalo o bandejas de cartón, lo cual parece mostrar el carácter íntimo y espontáneo de estas creaciones.

En cuanto a los procedimientos artísticos, Rosa Valverde hace uso de recursos técnicos variados como collage, lápices de color, tinta, acuarela, témpora, pastel y ceras, que puede llegar a combinar en un mismo trabajo. El tamaño de los dibujos es de pequeño y mediano formato, no superando los mayores la medida de los 45 x 60 cm.

Más concretamente, se trata de 23 obras que incluyen gouaches, acuarelas y ceras de la etapa de la Academia Libre de los Jueves, entre los años 1964 – 1967; cinco obras de sus primeros años de trayectoria, entre 1970 y 1978, realizadas en diferentes técnicas (lápiz, ceras, tinta, acuarela y collage); y 169 dibujos realizados entre 1979 y 2014, también en diferentes técnicas.

Encontrar los dibujos que estaban guardados en las carpetas de su estudio tras la muerte de la artista fue una sorpresa para la familia. Y es que, aunque Rosa reconocía al dibujo su gran importancia, no solía llevar dibujos a las exposiciones, con la excepción de la gran muestra de 2012 en la Ciudadela de Pamplona.

En palabras de Michel Mejuto, galerista que ha realizado el informe sobre la donación, “es importante resaltar el interés documental del legado, ya que este conjunto de 197 dibujos permite trazar un recorrido cronológico ininterrumpido por la obra de Rosa Valverde, desde sus primeros pasos como alumna de la Academia Libre de los Jueves bajo la tutela de José Antonio Sistiaga y Esther Ferrer –enseñanza que sería clave en el desarrollo posterior de su visión artística-, hasta los dibujos finales realizados en los meses anteriores a su fallecimiento.

Este corpus de dibujos permite además comprender desde una perspectiva panorámica la evolución estilística de Rosa Valverde y documentar los temas y obsesiones que la artista convirtió en argumento y *leitmotiv* de su obra, enfocada en torno a la psique y el cuerpo femenino, la evocación de la infancia, sus temores y enigmas.

En definitiva, se trata de un conjunto que ilustra y enriquece la comprensión de su obra más difundida, pintada al óleo o materializada en las cajas construidas con objetos encontrados que la artista recogía y acumulaba en su estudio.



San Telmo Museoa

Este legado supone, además, una excelente oportunidad de preservar la memoria de la creadora guipuzcoana, artista singular de discurso artístico personal, que se aparta tanto de los patrones de la abstracción de postguerra como del realismo teñido de evocaciones pop, irónicas y surreales habitual entre los autores coetáneos de generación, abriendo un capítulo original en el desarrollo del arte guipuzcoano de la segunda mitad del siglo XX.

Utilizando un lenguaje antiacadémico, próximo al *art brut* y a la indagación surreal, Rosa Valverde construyó un mundo personal y coherente centrado en la psique y el cuerpo de la mujer desde una sensibilidad doliente y delicada.”